



AUTONOMOARENA

KONTATU IEZADAK BERRIZ IPUINA PAUSOZ PAUSO. ETA HOBE DUK HUTSIK EZ EGITEA, LEKUKOAK ZAUDEK.



ESAN DIZUDAN BEZALA IZAN ZEN. NIRE BIKOTEKIDEAK OSO GOIZ SARTU BEHAR IZATEN DU LANERA ETA EGUN HARTAN ERE HALAXE IZAN ZEN...



HAUR BAT GAIXORIK NAHIKOA EZ ETA, HARA NON, BESTEA ERE, GOITIK ETA BEHETIK, EZKER-ESKUMA, HODITERIAK ORO LIBRATZEN HASI ZEN...



NIK BANITUEN DERRIGOR BUKATU BEHARREKO PARE BAT LAN.

AMA? ZU BE GAIXORIK?!... BALE, BALE... ZAINDU...



ZUK TOXIKOMANOEKIN TRATUA IZANGO ZENUENEZ, EZAGUTUKO DUZU IBUPROFENOAREN "GORA-GORA-HEY" EFEKTUA...

KONTUZ KAFEAREKIIIIIN!



...BA, BAJOIA ERE TAMAINAKOA DA! ZORIONEZ, PEDIATRAK BAZELUKAN TARTEXO BAT ETA OSASUN ZENTRORA ABIATU GINEN BIRIBILKETA ALEGERAN.

EZ, ORAIN EZ NAGO ORDENAGAILUAREN AURREAN, GERO DEITUKO...



JAI! AUTONOMOAK BAI, BIZI!... BESTE GUZTIAK LANEAN ETA AUTONOMOIA FAMILIAREKIN PASIADAN!... HORI DUK HORI ERRAZ BIZI AUTONOMOAK! ...JAI!



LEHENAGO ERE ESAN DIZUT. IZATEZ, EZ NAIZ BATERE BIOLENTOA...



DEFUNTUAK ERE BAZITIAN EMAZTEA ETA HAURRAK.

ETA HAMABOST PAGA URTEAN BERE BAJA ESKUBIDE ETA GUZTI. ETA ERRETIRORA ARTEKO LANA DIPUTAZIOAN.

ETA KATANA?!... NONDIK ATERA DUK KATANA?!...

HATTORI HANZO ORIJINAL BAT. MAISULANA.



iRRITZIA:



Unai ITURRIAGA

zugaz/art